# 194 EREDUA AURKEZTEKO DISEINU FISIKO ETA LOGIKOAK

## ERREGISTROEN AZALPENA

Aitortzaile bakoitzeko, bi erregistro mota desberdin sartuko dira. Horiek lehen posizioagatik bereiziko dira irizpide hauen arabera:

**1. mota: Aitortzailearen erregistroa**: identifikazio datuak eta aitorpenaren laburpena. 1. motako erregistroaren diseinua, apartatu hauetan eta foru agindu honetako eranskinean aurrerago azaltzen dena.

**2. mota: Aitortuen erregistroa**. 2. motako erresgitroaren diseinua, apartatu hauetan eta foru agindu honetako eranskinean aurrerago azaltzen dena.

Aurkezpenaren ordena erregistro motaren araberakoa izango da. 1. motarako, erregistro bakarra egongo da, eta 2. motarako, berriz, aitorpenean jasotzen diren aitortuak adina erregistro.

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldera lerrokatuko dira oro har, eta eskuinaldetik zuriunez beteak agertuko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

Hizkuntzaren karaktere bereziak adierazteko ISO-8859-1 kodeketa erabiliko da. Horrela, «Ñ» letra 209 ASCII balorea izango da (Hex. D1) eta «Ç» letra (zedila maiuskula) 199 ASCII balorea (Hex. C7).

Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen eta ezkerraldetik zeroz beteak agertuko dira, zeinurik gabe eta trinkotu gabe.

Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, edukia eremu guztiek izango dute. Edukirik ez badute, eremu numerikoak zeroz beteko dira, eta alfabetikoak eta alfanumerikoak bete gabe utziko dira.

Taldekako aurkezpena egiten bada (aitortzaile bat baino gehiago artxibo berean) fitxategiaren lehen erregistro bezala zero motako erregistro bat aurkeztuko da, apartatu honetan bertan erregistro mota horretarako deskribatzen dugun diseinuari jarraituz. Horrek aurkezpena egiteaz arduratzen den pertsona edo entitatearen datuak jasoko ditu, eta derrigorrezkoa izango da pertsona edo entitate hori fitxategian aitortzaile bezala ere azaldu arren. Ondoren, lehen aitortzailearen datuak jarriko dira (1. mota), eta bere jasotzaileak gero (2. mota); jarraian, hurrengo aitortzailearen datuak adieraziko dira, eta horrela hurrenez hurren.

# 194 EREDUA

## A. 0. motako erregistroa: AURKEZLEAREN ERREGISTROA

| POSIZIOAK | IZAERA | EREMUEN AZALPENA |
|---|---|---|
| 1 | Numerikoa | **ERREGISTRO MOTA**<br>«0» konstantea (zero). |
| 2-4 | Numerikoa | **AITORPEN EREDUA**<br>«194» konstantea. |
| 5-8 | Numerikoa | **EKITALDIA**<br>Fitxategian sartu diren aitorpenen zerga ekitaldiko lau zifrak jarriko dira |
| 9-17 | Alfanumerikoa | **AURKEZLEAREN IFZ**<br>Aurkezlearen IFZ jarriko da.<br>Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira. |
| 18-57 | Alfanumerikoa | **AURKEZLEAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETATEAREN IZENA**<br>1. motako erregistroan aitortzailearentzat adierazi den irizpide berberari jarraituz beteko da. |
| 58-109 | Alfanumerikoa | **AURKEZLEAREN HELBIDEA**<br>Eremu hau bederatzitan banatzen da.<br>58-59: SG: Bide publikoaren siglak.<br>60-79: Bide Publikoa: Bide publikoaren izena. Alfabetikoa izan behar du eta, beraz, izenak zenbakiak dituenean hizkiekin adieraziko da (adibidez: Maiatzaren 1a, «maiatzaren lehena» idatziko da). Errepidea denean, km. laburdura jarriko da bukaeran.<br>80-84: Zenbakia: Etxearen zenbakia edo puntu kilometrikoa (hamartarrik gabe). Numerikoa izan behar du eta bost posiziotakoa<br>85-86: Eskailera.<br>87-88: Oina.<br>89-90: Atea.<br>91-95: Posta Kodea: Aurkezlearen zerga helbideari dagokiona. Numerikoa izan behar du eta bost posiziotakoa. |

| | | |
|---|---|---|
| | | 96-107: Udalerria: Hamabi posizio hartzen ditu. Izenak hamabi karaktere baino gehiago baditu, lehen hamabiak jarriko dira artikulu eta preposiziorik gabe<br>108-109: Probintzia Kodea: Egindako ordainketen erregistroan (2. motan) Probintzia Kodea eremurako adierazi den irizpide berberari jarraituz beteko da<br>Aitorpen honetan jarritako helbideak izaera informatiboa izango du bakarrik, eta inoiz ez da aitorpen espresutzat hartuko Zergen Foru Arau Orokorrak 48.3 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako |
| **110-114** | **Numerikoa** | **AITORTZAILEAK GUZTIRA**<br>Bost posiziotako eremu numerikoa. Taldekako fitxategian guztira zenbat pertsona edo entitate aitortzaile sartu diren adieraziko da (1. motako erregistro grabatuen kopurua). |
| **115-123** | **Numerikoa** | **AITORTUAK GUZTIRA**<br>9 posizioko eremu numerikoa. Taldekako fitxategian guztira zenbat aitortu zerrendatu diren adieraziko da |
| **124** | | **ZURIUNEAK** |
| **125-173** | **Alfanumerikoa** | **HARREMANETARAKO PERTSONA**<br>Eremu hau bitan banatzen da:<br>125-133: Telefonoa: Bederatzi posiziotako eremu numerikoa<br>134-173: Deiturak eta izena: 1. motako erregistroan aitortzailearentzat adierazi den irizpide berberari jarraituz beteko da. |
| **174-500** | **ZURIUNEAK** | **ZURIUNEAK** |

* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira.

* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko/alfabetikoak zuriunez beteko dira.

* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldetik zeroz bete behar dira.

* Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko/alfabetiko guztiak ezkerraldetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldetik zuriunez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

## 194 EREDUA

**B. 1.Motako erregistroa**

**AITORTZAILEAREN ERREGISTROA**

| | | |
|---|---|---|
| **1** | **Numerikoa** | **ERREGISTRO MOTA**<br>«1» konstantea. |
| **2-4** | **Numerikoa** | **AITORPEN EREDUA**<br>«194» konstantea. |
| **5-8** | **Numerikoa** | **EKITALDIA**<br>Aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira. |
| **9-17** | **Alfanumerikoa** | **AITORTZAILEAREN IFZ**<br>Atxikitzailearen IFZ jarriko da.<br>Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira. |
| **18-57** | **Alfanumerikoa** | **AITORTZAILEAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETATEAREN IZENA**<br>Pertsona fisikoa bada, jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez.<br>Pertsona juridikoak eta errentak egozten dituzten entitateak direnean, sozietatearen izen osoa jarriko da, anagramarik gabe<br>Eremu honetan ezingo da inolaz ere merkataritza izenik jarri. |
| **58** | | **ZURIUNEAK** |
| **59-107** | **Alfanumerikoa** | **HARREMANETARAKO PERTSONA**<br>Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da:<br>59-67: Telefonoa: Bederatzi posiziotako eremu numerikoa<br>68-107: Deiturak eta izena: Jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez |
| **108-120** | | **ZURIUNEAK** |
| **121-122** | **Alfabetikoa** | **AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKO AITORPENA:**<br>Aurkezten dena bigarren aitorpen bat edo ordezko aitorpen bat denean honako eremu hauetako bat beteko da derrigorrez:<br>121: Aitorpen osagarria: «C» bat jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia lehendik aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean aipatu gabe utzi ziren aitortuak sartzea bada.<br>122: Ordezko aitorpena: «S» bat jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia ekitaldi berberari dagokion aurreko aitorpen bat baliogabetu eta bere osoan ordezkatzea bada. Ordezko aitorpenak aurreko aitorpen bat bakarrik ordezka dezake |
| **123-135** | | **ZURIUNEAK** |

| | | |
|---|---|---|
| **136-144** | **Numerikoa** | **AITORTU KOPURUA, GUZTIRA**<br><br>9 posizioko eremu numerikoa. Adierazi aitortzaile honentzako fitxategian guztira zenbat aitortu (erregistro) sartu diren atxikipenen eta konturako sarreren oinarriak zeinu positiboa izateagatik edo «Jatorria» eremuan U, V, X, Y edo Z gakoa agertzeagatik. Aitortu bat erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, ageri den adina aldiz konputatuko da. (2. motako erregistroen kopurua). (2. motako erregistroen kopurua). |
| **145-159** | **Numerikoa** | **ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA**<br>15 posiziotako eremu numerikoa.<br><br>«Atxikipenen eta konturako sarreren oinarria» eremuan (aitortuaren erregistroetako 157tik 169ra arteko posizioetan) adierazi diren zenbateko positiboen batura jarriko da zeinurik eta koma hamartarrik gabe.<br><br>Eremu hau bitan banatzen da:<br><br>145-157: Osoa: Numerikoa. Zati osoa:<br>Zenbatekoaren zati osoa jarriko da (ez badu, jarri zeroak).<br><br>158-159: Hamartarra: Numerikoa. Zati hamartarra:<br>Zenbatekoaren zati hamartarra jarriko da (ez badu, jarri zeroak). |
| **160-174** | **Numerikoa** | **ATXIKIPENAN ETA KONTURAKO SARRERAK**<br>15 posizioko eremu numerikoa. «Atxikipenak eta konturako sarrerak» eremuetan (aitortuaren erregistroetako 174tik 186era arteko posizioetan) adierazi diren zenbatekoen batura jarriko da zeinu eta koma hamartarrik gabe.<br><br>Eremu hau bitan banatzen da:<br><br>160-172: Osoa: Numerikoa. Zati osoa:<br>Zenbatekoaren zati osoa jarriko da (ez badu, jarri zeroak).<br><br>173-174: Hamartarra: Numerikoa. Zati hamartarra<br>Zenbatekoaren zati hamartarra jarriko da (ez badu, jarri zeroak). |
| **175-183** | **Numerikoa** | **AITORTU KOPURUA, GUZTIRA**<br>9 posizioko eremu numerikoa.<br><br>Adierazi aitortzaile honentzako fitxategian guztira zenbat aitortu (erregistro) sartu diren atxikipenen eta konturako sarreren oinarriak zeinu negatiboa edo zero emaitza izateagatik. Aitortu bat erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, zerrendaturik ageri den adina aldiz zenbatuko da. (2. motako erregistroen opurua). |
| **184-198** | **Numerikoa** | **ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA**<br>15 posiziotako eremu numerikoa.<br><br>«Atxikipenen eta konturako sarreren oinarria» eremuan (aitortuaren erregistroetako 157tik 169ra arteko posizioetan) adierazi diren zenbateko negatiboen batura jarriko da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe.<br><br>Eremu hau bitan banatzen da: |

| | | |
|---|---|---|
| | | 184-196: Osoa: Numerikoa. Zati osoa:<br>Zenbatekoaren zati osoa jarriko da (ez badu, jarri zeroak).<br><br>197-198: Hamartarra: Numerikoa. Zati hamartarra:<br>Zenbatekoaren zati hamartarra jarriko da (ez badu, jarri zeroak) |
| **199-500** | | **ZURIUNEAK** |

* Zenbateko guztiak positiboak izango dira

* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira
* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko/alfabetikoak zuriunez beteko dira.

* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, ezkerraldetik zeroz beteko direlarik
* Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko/alfabetiko guztiak ezkerraldetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldetik zuriunez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

## 194 EREDUA

## C 2. motako erregistroa:

## AITORTUAREN ERREGISTROA

| POSIZIOAK | IZAERA | EREMUEN AZALPENA |
|---|---|---|
| **1** | **Numerikoa** | **ERREGISTRO MOTA**<br>«2» konstantea. |
| **2-4** | **Numerikoa** | **AITORPEN EREDUA**<br>«194» konstantea. |
| **5-8** | **Numerikoa** | **EKITALDIA**<br>1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da. |
| **9-17** | **Alfanumerikoa** | **AITORTZAILEEN IFZ**<br>1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da. |
| **18-26** | **Alfanumerikoa** | **AITORTUAREN IFZ**<br>Pertsona fisikoa bada, aitortuaren IFZ jarri behar da.<br><br>Aitortua pertsona juridikoa edo errentak esleitzen dituen entitatea denean (ondasun komunitatea, sozietate zibila, herentzia onartugabea, etab.), haren IFZ jarriko da.<br><br>Adingabeak edo desgaituak identifikatzeko, adingabearen edo desgaituaren datuak jarri behar dira, bere identifikazio fiskaleko zenbakia barne, baita bere legezko ordezkariarenak ere. |

| | | |
|---|---|---|
| | | Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira |
| **27-35** | **Alfanumerikoa** | **LEGEZKO ORDEZKARIEN IFZ**<br>Aitortua adingabea edo desgaitua bada, bere legezko ordezkariaren IFZ (aita, ama edo tutorearena) jarri behar da eremu honetan. Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira<br><br>Gainerako kasuetan, eremu honetako edukia hutsuneekin beteko da. |
| **36-75** | **Alfanumerikoa** | **AITORTUAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETATE IZENA**<br>a) Pertsona fisikoak badira, jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez. Aitortua adingabea edo desgaitua bada, eremu honetan adingabearen edo desgaituaren deiturak eta izena jarriko dira.<br><br>b) Jasotzaileak pertsona juridikoak edo errentak esleitzen dituzten entitateak badira, haien sozietate izen osoa jarriko da, anagramarik gabe |
| **76-77** | **Numerikoa** | **PROBINTZIA KODEA**<br>Aitortua egoiliarra bada, edo egoiliarra izan gabe, lurralde espainiarrean establezimendu iraunkorraren bidez jarduten badu, aitortuaren helbideari dagokion probintziaren edo, hala bada, hiri autonomoaren bi digitu numerikoak jarriko dira, honako zerrendaren arabera: |

| | |
|---|---|
| ARABA .......................... 01 | LEON ........................... 24 |
| ALBACETE ..................... 02 | LLEIDA .......................... 25 |
| ALACANT ...................... 03 | LUGO ............................ 27 |
| ALMERIA ....................... 04 | MADRIL ........................ 28 |
| ASTURIAS ..................... 33 | MALAGA ....................... 29 |
| AVILA ........................... 05 | MELILLA ....................... 52 |
| BADAJOZ ....................... 06 | MURTZIA ...................... 30 |
| BARTZELONA ............... 08 | NAFARROA .................. 31 |
| BURGOS ....................... 09 | OURENSE ..................... 32 |
| CACERES ...................... 10 | PALENTZIA ................... 34 |
| CADIZ ........................... 11 | PALMAS, LAS .............. 35 |
| KANTABRIA .................. 39 | PONTEVEDRA .............. 36 |
| CASTELLO ..................... 12 | ERRIOXA ...................... 26 |
| CEUTA .......................... 51 | SALAMANCA ................ 37 |
| CIUDAD REAL ............... 13 | S.C.TENERIFE ............... 38 |

| | |
|---|---|
| KORDOBA .................... 14 | SEGOVIA ..................... 40 |
| CORUÑA, A .................. 15 | SEVILLA ....................... 41 |
| CUENCA ....................... 16 | SORIA .......................... 42 |
| GIRONA ....................... 17 | TARRAGONA ............... 43 |
| GRANADA .................... 18 | TERUEL ........................ 44 |
| GUADALAJARA ............ 19 | TOLEDO ....................... 45 |
| GIPUZKOA .................... 20 | VALENTZIA .................. 46 |
| HUELVA ........................ 21 | VALLADOLID ................ 47 |
| HUESCA ....................... 22 | BIZKAIA ....................... 48 |
| BALEARRAK ................. 07 | ZAMORA ..................... 49 |
| JAEN ............................ 23 | ZARAGOZA .................. 50 |

**78** **Alfabetikoa**

**JATORRIA**

Jarri dagokion gako alfabetikoa honako zerrrenda honen arabera:

A. Eskualdaketa
B. Amortizazio edo berreskurapena.
C. Truke edo bihurketa.
D. Aktibo finantzarioen eskualdaketa, abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuak, Errenta Zergaren Erregelamendua onartzen duenak, 100.f) artikuluan aipatzen duen kupoia epemugara iritsi aurreko 30 egunen barruan egindakoa.
E. Aktibo finantzarioak aldi baterako lagatzeko eragiketak, berrerosketa hitzarturik
U. Kooperatibak. Ekarpenak berreskuratzea.
V. Kooperatibak. Ekarpenak «inter-vivos» eskualdatzea
X. Kooperatibak. Ekarpenak «mortis-causa» eskualdatzea
Y. Kooperatibak. Ekarpenak: Beste kooperatiba batera eramatea.
Z. Kooperatibak. Ekarpenak: Eskubide errealak eratu edo lagatzea

Eremu honetan U, V, X, Y edo Z gakoa jartzen bada, aitortu (erregistro) berberari buruz segidan ageri diren remuak honela beteko dira:

Kodearen gakoa: Edukirik gabe.

Jaulkitzailearen kodea: «Jatorria» eremuan Y gakoa jarri bada, ekarpena jaso duen kooperatibari zerga administrazioak eman dion identifikazio fiskaleko zenbakia adieraziko da. Gainerako kasuetan, ez du edukirik izango.

Kode mota: Edukirik gabe

Balore kontuaren kodea: Edukirik gabe

Kobratu gabe: Edukirik gabe.

Sortzapen ekitaldia: Edukirik gabe

| | | |
|---|---|---|
| | | Eskuratze edo harpidetza balioa: Edukirik gabe<br><br>Eskualdatze, amortizazio, berreskuratze, truke edo bihurketa balioa: «Jatorria» eremuan U gakoa jarri bada, aitortutako berreskuratze eskubidearen zenbatekoa adieraziko da. Gainerako kasuetan, zenbatekoa izango da eskubide errealak eskualdatu, tokiz aldatu, eratu edo lagatzeko datan ekarpenek duten balorazioa<br><br>Atxikipenen eta konturako sarreren oinarria: Edukirik gab<br><br>Atxikipen %: Edukirik gabe.<br><br>Atxikipenak eta konturako sarrerak: Edukirik gabe<br><br>Lotura: Edukirik gabe. |
| **79** | **Numerikoa** | **KODEAREN GAKOA**<br>Ondoren ageri diren zenbakietako bat jarri behar da, ««Jaulkitzailearen kodea» eremuaren edukia identifikatzeko<br><br>1. Jaulkitzailearen kodea IFZ bati dagokio.<br><br>2. Jaulkitzailearen kodea ISIN kode bati dagokio.<br><br>3. Jaulkitzailearen kodea ISIN koderik ez duten atzerriko baloreei dagokie |
| **80-91** | **Alfanumerikoa** | **JAULKITZAILEAREN KODEA**<br>Lauki hau jaulkitzailea identifikatzeko bete behar da.<br><br>Ondoko hau jarriko da:<br><br>1 Oro har jarri behar da zerga Administrazioak jaulkitzaileari emandako identifikazio fiskaleko zenbakia («KODEAREN GAKOA» eremua, 79. posizioa, 1 balioarekin bete denean).<br><br>2 IFZrik gabeko aktibo finantzarioen eta bestelako balore higigarrien kasuan, ISIN kodea jarri behar da, halakorik badu. Kode horrek Balore Merkatuko Batzorde Nazionalak uztailaren 28an emandako 2/2010 Zirkularraren arabera egon behar du eratua («KODE GAKOA» eremua, 79. posizioa, 2 balioarekin bete denean).<br><br>3 Gainerako kasuetan (aktibo finantzarioak eta bestelako balore higigarriak, IFZ edo ISIN koderik gabeak direnean), «ZXX» gakoa jarri behar da. «XX» hori herrialde jaulkitzailearen kodea izango da, abenduaren 21eko 1070/2011 Aginduak III. eranskinean jasotzen duen zerrendaren arabera (1070/2011 Foru Agindua, Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek, establezimendu iraunkorrik gabe dihardutenek, ez-egoiliarren kontuengatik lortutako etekinak aitortzeko erabiliko den 291 eredua onartu eta aurkezpen moduak ontzat ematen dituena). |
| **92** | **Alfabetikoa** | **KODE MOTA**<br>Eremu honetan jarraian zerrendatzen diren letretako edozein jarriko da «Balore kontuaren kodea» eremuaren edukia identifikatzeko:<br><br>«C» Balore Kontuaren Kodearekin identifikatzen da (BKK). |

«O» Beste identifikazio bat

| | | |
|---|---|---|
| **93-112** | **Alfanumerikoa** | **BALORE KONTUAREN KODEA**<br>Bete datu hau baldin eta eredu honetan aitortzen diren kapital higigarriaren errentak edo etekinak ematen dituzten baloreak entitate finantzario batek kobratu, administratu eta gordailatzen baditu. Beraz, aitortzailea ez bada era horretako entitate finantzario bat, eremu hau ez da inolaz ere beteko. Egitura hau du eremu honek:<br><br>Entitatearen kodea: Lau dijitu.<br><br>Sukurtsalaren kodea: Lau dijitu<br><br>Kontrol dijituak: Bi dijitu.<br><br>Kontu zenbakia: Hamar dijitu |
| **113** | **Alfabetikoa** | **KOBRATU GABE**<br>Lauki honetan «X» bat jarriko da ekitaldian sortu diren errentak aitortzaileak ekitaldi horretan ordaindu ez dituenean titularrak ez direlako kobratzera agertu. Lauki honetan «X» jartzen den guztietan, aitortu (erregistro) bereko gainerako laukiak honela beteko dira:<br><br>Aitortuaren IFZ: 999 999 999<br><br>Ordezkariaren IFZ: 999 999 999<br><br>Deiturak eta izena, sozietatearen izena: Ordaindu gabeko baloreak.<br><br>Probintzia (Kodea): Edukirik gabe.<br><br>Jatorria: Dagokiona<br><br>Kodearen gakoa: Dagokiona.<br><br>Jaulkitzailearen kodea: Dagokiona.<br><br>Kode mota: Edukirik gabe<br><br>Balore kontuaren kodea: Edukirik gabe<br><br>Sortzapen ekitaldia: Edukirik gabe<br><br>Eskuratze edo harpidetza balioa: Dagokiona<br><br>Eskualdatze, amortizazio, berreskuratze, truke edo bihurketa balioa: Dagokiona<br><br>Atxikipenen eta konturako sarreren oinarria: Dagokiona.<br><br>Atxikipen %: Dagokiona.<br><br>Atxikipenak eta konturako sarrerak: Dagozkionak |

| | | |
|---|---|---|
| | | Aitortuari buruzko datuen informazioa ordaindu gabeko etekinak edo errentak ordaintzen zaizkion ekitaldiaren aitorpenean aurkeztuko da. Horrelakoetan, etekinak edo errentak ordaindu diren ekitaldiaren aitorpena egitean, «sortzapen ekitaldia» eremuan etekin edo errenta horiek sortu diren ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira, titularrak kobratzera ez agertzeagatik ordaindu ez diren ekitaldiarenak hain zuzen. |
| **114-117** | **Numerikoa** | **SORTZAPEN AKITALDIA**<br>4 posiziotako eremu numerikoa.<br><br>Aurreko ekitaldietan sortu eta, titularrak kobratzera agertzeagatik, aitortzen den ekitaldian ordaindu diren etekin edo erronten sortzapen ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira. Beste edozein kasutan eremu hau bete gabe utziko da. |
| **118-130** | **Numerikoa** | **ESKURATZE EDO HARPIDETZA BALIOA**<br>13 posiziotako eremu numerikoa<br><br>Aktibo finantzarioaren eskuratze edo harpidetza balioa jarri behar da, zeinu eta koma hamartarrik gabe, eta eragiketaren gastu osagarriak ez dira kenduko. Eskuratze baliotzat hartuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 111.2 artikuluan eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduko 56.5 artikuluan jasotakoaren arabera erosketa frogatu behar duen ziurtagirian jasota ageri dena. Etekin esplizituko aktibo finantzarioen kasuan, horiek 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen jaulki badira eta haien eskuratze prezioa frogatu gabe badago, aktiboaren jaulkipen balioa adieraziko lauki honetan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak hirugarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera<br><br>Aktibo finantzarioak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 100.f) artikuluan aipatzen duen kupoia epemugara iritsi aurreko 30 egunen barruan eskualdatu badira (hala bada, «Jatorria» eremuan «D» letra egongo da idatzita), «Eskuratze eta harpidetza balioa» eremua bete gabe utzi behar da<br><br>Eremu hau bitan banatzen da:<br><br>118-128: Osoa: Numerikoa. Zati osoa<br>Zenbatekoaren zati osoa jarriko da (ez badu, jarri zeroak)<br><br>129-130: Hamartarra: Numerikoa. Zati hamartarra:<br><br>Zenbatekoaren zati hamartarra jarriko da (ez badu, jarri zeroak). |
| **131-143** | **Numerikoa** | **ESKUALDATZE, AMORTIZAZIO, BERRESKURATZE, TRUKE EDO BIHURKETA BALIOA.**<br>13 posiziotako eremu numerikoa.<br><br>Eragiketari dagokion eskualdaketa, amortizazio, itzulketa, truke edo bihurketa balioa jarriko da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe, «Jatorria» eremuan zer adierazi den kontuan hartuta. Ondorio horietarako, eragiketak dakartzan gastuak ez dira gutxituko. |

Aktibo finantzarioak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 94.f) artikuluan aipatzen duen kupoia epemugara iritsi aurreko 30 egunen barruan eskualdatu badira (hala bada, «Jatorria» eremuan «D» letra egongo da idatzita), «Eskualdaketa, amortizazio, itzulketa, truke edo bihurketa balioa» eremua bete gabe utzi beharko da.

Eremu hau bitan banatzen da:

131-141: Osoa: Numerikoa. Zati osoa:
Zenbatekoaren zati osoa jarriko da (ez badu, jarri zeroak)

142-143: Hamartarra: Numerikoa. Zati hamartarra:
Zenbatekoaren zati hamartarra jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

**144-156** **ZURIUNEAK**

**157-169** **Alfanumerikoa** **ATXIKIPEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA**

Eragiketa honen emaitza adieraziko da: «Eskualdatze, amortizazio, berreskuratze, truke edo bihurketa balioa» eremuan adierazitako zenbatekoa ken «Eskuratze edo harpidetza balioa» eremuan adierazitakoa, zeinua eta guzti. Aktibo finantzarioak eskualdatu badira Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 100.f) artikuluan aipatzen duen kupoi korritua epemugara iritsi aurreko 30 egunen barruan (hala bada, «Jatorria» eremuan «D» letra egongo da idatzita), eta eskualdaketa horietan kupoi korrituaren prezioaren zati baliokideari atxikipena egin bazaio, eskualdatutako balorearen kupoi korrituaren prezio baliokidearen zatiak osatuko du atxikipenaren oinarria.

Eremu hau bitan banatzen da

157: Zeinua: Alfabetikoa
Aurreko eragiketan lortutako zenbatekoa negatiboa bada, «N» jarriko da. Beste edozein kasuan zuriunez beteko da

158-169: Zenbatekoa: 12 posiziotako eremu numerikoa
Lehen aipatutako eragiketan lortu den zenbatekoa zeinu eta koma hamartarrik gabe adieraziko da.

Eremu hau bitan banatzen da:

158-167: Osoa: Numerikoa. Zati osoa:
Zenbatekoaren zati osoa jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

168-169: Hamartarra: Numerikoa. Zati hamartarra:
Zenbatekoaren zati hamartarra jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

**170-173** **Numerikoa** **ATXIKIPEN %**

Aplikatu den atxikipenaren edo konturako sarreraren portzentajea jarriko da

Eremu hau bitan banatzen da:

170-171: Osoa: Numerikoa. Zati osoa:
Portzentajearen zati osoa jarriko da (ez badu, jarri zeroak)

| | | |
|---|---|---|
| | | 172 - 173: Hamartarra: Numerikoa. Zati hamartarra<br>Portzentajearen zati hamartarra jarriko da (ez badu, jarri zeroak). |
| **174-186** | **Numerikoa** | **ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK**<br>13 posiziotako eremu numerikoa.<br><br>Jarri zeinu eta koma hamartarrik gabe «Atxikipenen eta konturako sarreren oinarria» eremuan adierazitako zenbatekoari «Atxikipen %» eremuan adierazitako portzentajea aplikatzetik ateratzen den emaitza. Atxikipenen eta konturako sarreren oinarria» eremuan adierazitako zenbatekoa negatiboa bada, eremu honetan zero jarriko da.<br><br>Eremu hau bitan banatzen da:<br><br>174-184: Osoa: Numerikoa. Zati osoa:<br>Zenbatekoaren zati osoa jarriko da (ez badu, jarri zeroak).<br><br>185-186: Hamartarra: Numerikoa. Zati hamartarra:<br>Zenbatekoaren zati hamartarra jarriko da (ez badu, jarri zeroak |
| **187** | **Alfabetikoa** | **LOTURA**<br><br>Jasotzailea PFEZren zergaduna bada, «V» jarriko da aitortu diren kapital higigarriaren etekinak entitate lotuetatik datozenean. Bestela, zuriuneak utziko dira. |
| **188-500** | | **ZURIUNEAK** |

* Zenbateko guztiak positiboak izango dira
* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz bete behar dira.
* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko eta alfabetikoak bete gabe utzi behar dira
* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldetik zeroz beteko dira.
* Eremuaren azalpenean kontrakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldetik zuriuneak utziko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.